

ARRAKALA

IREKIDURA SAKONA ETA LUZEA
APERTURA PROFUNDA Y PROLONGADA

2017



MAIATZA
8-11
MAYO

DANTZERTI

Ibarrekolanda Plaza 1, Bilbo

★ Informazio gehiago eta izen emateak
Más información e inscripciones
www.dantzerti.eus / arrakala@dantzerti.eus

TAILERRAK TALLERES

Mai 8 May

■ **David Barbero**

Escritura dramática

■ **Idoia Zabaleta**

Irakurri eta dantzatu: aho batez

Mai 9 May

■ **Itxaso Corral**

Dramaturgias jamoneras y diccionarios de jardín de infancia para las artes vivas

■ **Joan Casas Fuster**

Una merienda con Aristóteles, o por qué siempre nos topamos con la poética

Mai 10 May

■ **Patxo Tellería**

Dramaturgia: makinaria zoroa

■ **Igor de Quadra**

Lekuko dramaturgiak

Mai 11 May

■ **Dejabu**

Objektuen dramaturgia

HITZALDIA CONFERENCIA

Mai 9 May

■ **Joan Casas Fuster**

Sobre algunas palabras griegas - crítica, teoría e historia- y una que no lo es -literatura-. Reivindicación de un recorrido académico

NAZIOARTEKO TOPAKETA

ENCUENTRO
INTERNACIONAL

Mai 9 May

**Dantzerti + Salt Lake City
University (Utah)**

ATE IREKIAK PUERTAS ABIERTAS

Mai 11 May

Aurretiaz izen emanez / Previa inscripción

ANTOLATZAILEAK / ORGANIZADORES:



EUSKADIKO ARTE DRAMATIKO
ETA DANTZAZA GOI MAILAKO
ESKOLA - ESCUELA SUPERIOR
DE ARTE DRAMÁTICO Y
DANZA DE EUSKADI



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

KOLABORATZAILEAK / COLABORADORES:

BilbaoMusika

dantzan

ARRAKALA

“Irekidura sakona eta luzea”

Dantzertiren helburu nagusia bere ikasleei antzerki eta dantzaren inguruan gogoeta eragin eta profesionalizaziora eramango dituen esperientzia eskeintzea da, eskola gizarteratzea eta arte eszenikoek gizartean duten lekua zaintzea ere albo-helburuak ditugarik.

Profesionalizatzeko prozesuan ikasleei hainbat ikasgai, irakasle eta eduki eskeiniko dizkie eskolak berak. Bestalde, ezinbestekoa deritzogu gure ikasleek eskolaz kanpoko beste profesional batzuekin hartueman izatea eta aldi berean antzerki eta dantzako profesionalak eskolan parte hartu ahal izatea.

Horrexegatik arrakaldu, ireki, egin nahi dugu Dantzerti astebetez. Formatua: eskolaz kanpoko jendearentzat ere irekiak izango diren ikastaro programa berezia, ate irekiak eskolako ohiko ikasgaietan eta beste jarduera batzuk, maiatzaren 8 eta 11 bitartean. Ez da nahi bezain luzea izango, baina espero dugu eragin sakona izatea parte hartuko duten pertsona guztiengan. Proiektu honen doitasunean sinisten dugularik, urtero errepika daitekeen arrakala zartatzen hasi nahi dugu, gogotsu.

Aurtengo proposamenak Dramaturgia izango du ardatz. Dramaturgia modu zabalean ulertua: idatzizkoa, eszenikoa, gorputzetik abiatutakoa... Beraz ikastaro guztien artean Dramaturgiaren inguruan lan egiteko proposamen anitzak izango ditugu.

ARRAKALA

“Apertura profunda y prolongada”

El objetivo principal de Dantzerti es generar reflexión en su alumnado en torno al teatro y la danza ofreciendo una experiencia profesionalizadora, así como hacer visible la escuela en la sociedad y cuidar el lugar que ocupan en ella las artes escénicas.

En ese proceso de profesionalización, la propia escuela ofrece al alumnado una variedad de asignaturas, profesores y contenidos. Sin embargo, creemos imprescindible que nuestro alumnado se relacione con profesionales ajenos a la escuela y que, al mismo tiempo, profesionales del teatro y la danza puedan participar en Dantzerti.


Por todo ello, queremos abrir una ranura en Dantzerti durante una semana. El formato: un programa especial de cursos en los que se encuentren trabajando juntos tanto el alumnado de la escuela como alumnado externo, puertas abiertas en las asignaturas habituales de la escuela y otras actividades entre el 8 y el 11 de mayo. No será tan extensa como desearíamos pero esperamos que incida profundamente en todas las personas participantes. Creyendo en la pertinencia de este proyecto como un proyecto que puede repetirse año tras año, empezamos a abrir esa *arrakala* o grieta con ilusión.

La propuesta de este año tendrá como eje la Dramaturgia. Dramaturgia entendida de manera muy amplia: escrita, escénica, aquella que parte de lo físico o corporal... Por lo tanto tendremos la oportunidad de trabajar en torno a la Dramaturgia desde diversas propuestas.

ANTOLATZAILEAK
ORGANIZADORES



LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES



ARRAKALAKO PLANING OROKORRA

PLANING GENERAL DE ARRAKALA


MAIATZAK 8 ASTELEHENA		MAIATZAK 9 ASTEARTEA		MAIATZAK 10 ASTEAZKENA		MAIATZAK 11 OSTEGUNA	
						9.30-11.00 ATE IREKIAK Antzerki fisikoa I Dantza II Dantza klasikoaren teknika I Dantza garaikidearen teknika I	
		10.30-12.00 Hitzaldia: Joan Casas. Eta Dantzertiko liburutegiaren aurkezpena.				11.10-11.50 Solasaldia Auditoriumean: Dantzertiko ikasketak, sarbide probak, etab.	
		12.00 Dantzerti-Utah euskal dantzako topaketa				12.00-13.30 ATE IREKIAK Interpretazioa II Sorkuntza klasiko tailerra I Interpretazio garaikide tailerra II	
ATSEDENALDIA		ATSEDENALDIA		ATSEDENALDIA		ATSEDENALDIA	
16.30-20.30 David Barbero	17.00-21.00 Idoia Zabaleta	17.00-21.00 Itxaso Corral	17.00-21.00 Joan Casas	16.30-20.30 Patxo Telleria	16.30-20.30 Igor de Cuadra	16.30-20.30 Dejabu Panpin Laborategia	

8 DE MAYO LUNES		9 DE MAYO MARTES		10 DE MAYO MIÉRCOLES		11 DE MAYO JUEVES	
						9.30-11.00 PUERTAS ABIERTAS •Teatro físico I •Danza II •Técnica de danza clásica I •Técnica de danza contemporánea I	
		10.30-12.00 Conferencia: Joan Casas. Y presentación de la biblioteca de Dantzerti				11.10-11.50 Charla en el Auditorium: estudios de Dantzerti, pruebas de acceso, etc.	
		12.00 Encuentro de euskal dantza Dantzerti-Utah				12.00-13.30 PUERTAS ABIERTAS •Interpretación II •Taller de creación clásico I •Taller de interpretación contemporáneo II	
PAUSA		PAUSA		PAUSA		PAUSA	
16.30-20.30 David Barbero	17.00-21.00 Idoia Zabaleta	17.00-21.00 Itxaso Corral	17.00-21.00 Joan Casas	16.30-20.30 Patxo Telleria	16.30-20.30 Igor de Cuadra	16.30-20.30 Dejabu Panpin Laborategia	

ANTOLATZAILEAK
ORGANIZADORES



LAGUNTZAILEAK
COLABORADORES



AURKIBIDEA/ÍNDICE

- | | |
|--|--------------|
| 1.- Irakaslego gonbidatua /Profesorado invitado | 5-14 |
| 2.- Tailerrak / Talleres | 15-22 |
| 3.- Hitzaldia /Conferencia | 23-27 |
| 4.- Dantzerti-Utah Euskal Dantzako topaketa /Encuentro de Euskal Dantza Dantzerti-Utah | 28-30 |
| 5.- Ate irekiak / Puertas abiertas | 31-33 |

IRAKASLEGO GONBIDATUA

PROFESORADO INVITADO



DAVID BARBERO (Grijalba, 1944)

Kazetaria, unibertsitate irakaslea, antzerkigilea eta nobelagilea da. Irakasle moduan, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean burutu du bere irakaskuntza aktibitatea. Irakatsitako ikasgaiak, kazetaritzaz gain, literatura eta idazkera dramatikoak izan dira. Autore moduan, hainbat lan argitaratu ditu, eta hauetariko asko estreinatutakoak izan dira. Bere kazetari lana ETBn eta prentsa idatzian garatu du. Irratian ere kolaboratu du.

Es periodista, profesor universitario, autor teatral y novelista. Como profesor, ha desarrollado su actividad docente en la Universidad del País Vasco y en la de Deusto. Las materias impartidas, además de periodismo, han sido la literatura y la escritura dramática. Como autor, tiene un elevado número de obras publicadas, de las que una buena parte han sido estrenadas. Su labor periodística se ha desarrollado en ETB y la prensa escrita. También colabora en la radio.



JOAN CASAS FUSTER (Barcelona, 1950)

Zuzendaritza eszenikoan lizentziatua Institut del Teatren. Geologia, Kazetaritza eta Filologia ikasketak egin ditu. Ibilbide zabalarekin antzerkian (aktore, dramaturgo eta ideologo gisa) antzerki kritikaria izan da (*Diario de Barcelona, Avui*) eta *Pausa* eta *Estudis Escénics* antzerki aldizkarietako zuzendaria izan da. Horrez gain, Antzerkiaren Teoria eta Historia Departamentuko irakasle izan da 27 urtez. Poeta eta ibilbide luzeko itzultzailea (Helder Costa, Iannis Ritsos, Carlo Goldoni, Dario Fo, Marivaux, A. Chéjo, etab.).

Es licenciado en Dirección de Escena por el Institut del Teatre y ha cursado estudios de Geología, Periodismo y Filología. Con un extenso recorrido en teatro (como actor, dramaturgo e ideólogo) ha sido crítico teatral (*Diario de Barcelona, Avui*) y director de las revistas teatrales *Pausa* y *Estudis Escénics*, además de profesor del Departamento de Teoría e Historia del teatro durante 27 años. Poeta y traductor de largo recorrido (Helder Costa, Iannis Ritsos, Carlo Goldoni, Dario Fo, Marivaux, A. Chéjo, etc.).



PATXO TELLERÍA (Bilbo, 1960)

Pedagogian (Deustuko Unibertsitatea, 1982) eta Filologian lizentziatutako (EHU, 1990), aktore, dramaturgo-gidoigile eta zuzendaria. Lehen dramaturgo lanak Maskarada eta Txirene konpainiekin egin ondoren, Mikel Martínezekin batera antzezteko lan asko sortu ditu “Ez Dok Hiru” konpainian eta Martínez eta Jokin Oreguirekin batera “Tartean” konpainiarekin. Hortaz gain beste konpainia batzuetarako (Tanttaka Teatroa, Albena Teatre, Arriaga Antzokia, Vaivén, etab.) ere sortu ditu antzezlanak: “Abentura antzokian”, “El museo del tiempo”, “Soinujolearen semea”, “Azken trenaren Treblinkara”, etab. Besteak beste euskarazko testurik onenari Max Saria jaso du hirutan (2002, 2008 eta 2011), Donostiako Antzerki Saria (2011) eta Estatuko antzezlan onenari Ercilla Saria (2013) eskuratu ditu.


Licenciado en Pedagogía (Universidad de Deusto, 1982) y Filología (EHU, 1990), actor, dramaturgo-guionista y director. Tras realizar sus primeros trabajos como dramaturgo con las compañías Maskarada y Txirene, crea varias obras teatrales junto con Mikel Martínez en la compañía Ez Dok Hiru y junto con Martínez y Jokin Oreguire en la compañía Tartean. También crea obras teatrales para otras compañías (Tanttaka Teatroa, Albena Teatre, Arriaga Antzokia, Vaivén, etc.): *Abentura antzokian*, *El museo del tiempo*, *Soinujolearen semea*, *Azken trenaren Treblinkara*, etc. Ha recibido, entre otros, el Premio Max al mejor texto en euskera en tres ocasiones (2002, 2008 y 2011), Premio Donostia Antzerki Saria (2011) y el Premio Ercilla a la mejor obra teatral del Estado.



SABIN BIKANDI (Galdakao, 1965)

Filosofian Doktorea Londreseko unibertsitatean (PhD) eta Etnomusikologian Masterra Goldsmith Collegen. Goi mailako musika irakaslea Donostiako Kontserbatorioko Ohorezko Saria lortuz eta Bilboko Kontserbatorioko Ganbara Musikako Ohorezko Aipamena. Hainbat talde eta erakundetean aritu da 1980. urtetik irakasle edo/ta jotzaile moduan, tartean Musikeneko tradiziozko dantza irakasle moduan ere. Txistulari aldizkariko zuzendaria izan zen (1992-1995). Konpositore gisa, txistu eta tradiziozko musika inguruan hainbat musika lan idatzi eta moldatu ditu. 2015. urtean ikusikizun baterako musika konposiziorik onenaren Max saria irabazi zuen. Gaur egun, Bilboko udaleko danbolinteroa da eta Aiko taldeko kidea.

Doctor en Filosofía en la Universida de Londres (PhD) y Máster en Etnomusicología en Goldsmith College. Profesor superior de música logrando el premio de honor del Conservatorio de Donostia y Mención de Honor en Música de Cámara del Conservatorio de Bilbao. Desde 1980, colabora como profesor e instrumentista en varias agrupaciones e instituciones y, en este tiempo, también ha sido profesor de danza tradicional en Musikene. Ha sido director de la revista Txistulari (1992-1995). Como compositor ha escrito y adaptado varias obras de txistu y música tradicional. En 2015, gana el premio Max a la mejor composición musical para espectáculo. Actualmente, es tamborilero del municipio de Bilbao y miembro de Aiko Taldea.



PATXI LABORDA (Iruñea, 1967)

Dantzari, dantza-maisu, koreografo, gidoilari eta dantza sustatzailea, urteak daramatza Bilbao Musikan helduendako tradiziozko dantzaren irakasle lanetan. Aiko taldean erromeria dinamizatzaile moduan ere aritzen da eta hauekin dantzarako zenbait diska eta DVDren prestaketan eta grabaketan parte hartu du. Dantza tradizionalaren inguruko hamaika ikastaro eman ditu bai gurean eta baita gure mugetatik kanpo ere, hango eta hemengo dantza-maisuekin etengabeko hartu emana mantenduz. Neguko folklorean berezitua, hainbat lan egin ditu euskal dantzaz, neguko solstizioaz eta inauterien inguruan. Zenbait aldizkaritarako dantzaren inguruko artikulua ere idatzi izan ditu, besteak beste 2007ko neguan EDBko Dantzariak aldizkariaren 54.alean argitaratutako "Dantzan irakasten" izenburukoa, edota Euskonews-en jasotako "Euskal plaza dantzen akademizazioaren inguruan" gogoeta.

Bailarín, maestro de danza, coreógrafo, guionista y promotor de danza, lleva años en Bilbao Musika enseñando danza tradicional a adultos. También colabora como dinamizador de romería en Aiko Taldea y ha participado con ellos en la preparación y grabación de varios discos y DVDs. Ha impartido cursos de danza tradicional dentro y fuera de nuestras fronteras, manteniendo un constante intercambio con maestros de danza extranjeros. Especializado en el folclore de invierno, ha realizado varios trabajos sobre la euskal dantza, el solsticio de invierno y los carnavales. También ha escrito artículos sobre danza para varias revistas, entre otros, el artículo titulado "Dantzan irakasten" publicado en el invierno de 2007 en el nº 54 de la revista Dantzariak de EDB, o la reflexión "Euskal plaza dantzen akademizazioaren inguruan" recogida en Euskonews.



IGOR DE QUADRA (Bilbo, 1970)

Psikologia lizentzaturia EHU-UPV unibertsitatean eta Londres-eko International School of Corporeal Mim eskolan diplomaturia eta postgradoduna da. EHU/UPV-ko Arte eta Ikerketa masterra burutu du. Londresen *Theatre de L'Ange Fou* eta *Falsa Imago* konpanietan hasi zen antzerki fisiko lanetan. 2005ean sormen lan pertsonalak egiten hasi zen eta 2010tik hona, HORMAN POSTER kolektiboaren parte da zeinaren bitartez antzokietarako nahiz espazio publikoetarako sormen lan eszenikoak ekoizten dituen. Kolektiboak, ekoizpen artistikoa Arte eta Komunitate proiektuekin uztartzen du hasieratik, esperientzia eta gorputzaren potentzialitate eraldagarrian duen sinesmena motore delarik. 2010 eta 2015 bitartean Muelle3, arte eszenikoetarako sormen lantegia zuzendu zuen Olatz de Andrés eta Matxalen de Pedroekin batera. Egun, dramaturgiaren inguruko doktoretza burutzen ari da.

Licenciado en Psicología en la universidad EHU/UPV y diplomado y posgraduado en la *International School of Corporeal Mim* de Londres. Ha realizado el Máster en Arte e Investigación de la universidad EHU/UPV. Comienza a trabajar en teatro físico en Londres con las compañías *Theatre de L'Ange Fou* y *Falsa Imago*. En 2005 comienza a realizar trabajos de creación personales. En 2010 forma parte del colectivo HORMAN POSTER, a través del cual produce obras escénicas para teatros o espacios públicos. Desde su creación, el colectivo une la producción artística con proyectos de Arte y Comunidad, con la convicción como motor de la potencialidad transformadora de la experiencia y del cuerpo. Entre 2010 y 2015 dirige, junto a Olatz de Andrés y Matxalen de Pedro, la fábrica de creación para artes escénicas Muelle3. Actualmente, escribe su tesis doctoral sobre la dramaturgia.



IDOIA ZABALETA (Gasteiz, 1971)

Koreografoa. Biologia fakultatean ekosistemetan eta populazioen dinamikan espezialdu zen. Dantza berria eta inprobisazio-ikasketak egin zituen Bartzelonan, Florentzian, Amsterdamen eta New Yorken. 1995 eta 1999 bitarte Mal Pelo konpainiarekin egin zuen lan. 2000tik aurrera, reproduzitzen eta bere lanak egiten hasi zen, beste artista eta ikerlariekin batera lan eginez, besteak beste, Isabel de Naverán, Filipa Francisco, Antonio Tagliarini, Ixiar Rozas eta Sofia Asencioekin. Bere lanak jaialdietan eta nazioarteko topaketetan egon dira ikusgai. Zenbait master eta graduondoko ikastarotan eskolak ematen ditu, eta 2008az geroztik, Juan Gonzálezekin batera, arte-erresidentzietarako eta sormenerako AZALA espazioa eraiki eta kudeatzen du, hain zuzen ere bera bizi zen herrian bertan.

Coreógrafa. Se especializa en ecosistemas y dinámicas de población en la facultad de Biología. Realiza estudios de nueva danza e improvisación en Barcelona, Florencia, Ámsterdam y Nueva York. Entre 1995 y 1999 trabaja con la compañía Mal Pelo. A partir del año 2000, comienza a coproducir y crear sus trabajos, trabajando junto a otros artistas e investigadores como Isabel de Naverán, Filipa Francisco, Antonio Tagliarini, Ixiar Rozas y Sofia Asencio, entre otros. Sus trabajos han sido presentados en festivales y encuentros internacionales. Es docente en varios másteres y cursos de posgrado, y desde 2008, junto con Juan González, construye y gestiona el espacio para residencias artísticas y creación AZALA, precisamente, en el pueblo en el que ella vivía.



ITXASO CORRAL (Bilbao, 1979)

Kazetaritzan lizentziatua (EHU), Arte Dramatikoan formatua (Getxoko Antzerki Eskola) eta *École Internationale de Théâtre Jacques Lecoq*en diplomatua. *Film and Performance Studies*en Diploma (University of Kent), Gorputzaren Poetikan Graduondoa (UdG eta Teatro de los Sentidos) eta Praktika Eszenikoa eta Ikuste-kulturan Masterra (Arte-a, UCLM eta Reina Sofía Museoa). Bere azken lan eszenikoa, *Mandíbula*, El Lugar Sin Límites 2016 zikloan aurkeztua izan da Madrilgo CNDan. Gorputzaren esplorazioa iradokitzen du hitzari, gramatikari eta sintaxiari dagokionez. “*El cráneo roto y la entraña recién nacida temblando*” *Pliegos de Teatro y Danza* bildumaren 54. zenbakia publikatu zituen, eta *Mercat de Les Florseko Cuerpo y Letra* bildumaren *Componer el plural. Escena, cuerpo y polítican* kolaboratu zuen. Óscar Bueno Rodríguezekin batera, Poderío Vital da, arte eszeniko, performance, idazkera eta musika-konposizioa bitarteko ikerketa lan bat, presentziari, gorputzaren jakiteei eta izaki bizidunen gertaera komunikatiboetarako buruzko gogoetaren inguruan.

Licenciada en *Periodismo* (UPV), formada en *Arte Dramático* (Escuela de Teatro de Getxo), y diplomada en la *École Internationale de Théâtre Jacques Lecoq*. Diploma en *Film and Performance Studies* (University of Kent), *Postgrado en Poética del Cuerpo* (UdG y Teatro de los Sentidos) y *Máster en Práctica Escénica y Cultura Visual* (Arte-a, UCLM y Museo Reina Sofía). Su última obra escénica, *Mandíbula*, ha sido presentada dentro del ciclo *El Lugar Sin Límites 2016* en el CDN, Madrid, y sugiere una exploración del cuerpo en relación a la palabra, la gramática y la sintaxis. Publicó “*El cráneo roto y la entraña recién nacida temblando*”, nº 54 de la colección *Pliegos de Teatro y Danza* y colaboró en *Componer el plural. Escena, cuerpo y política* de la Colección *Cuerpo de Letra*. Es también, junto a Óscar Bueno Rodríguez, Poderío Vital, un proyecto de investigación entre las artes escénicas, la performance, la escritura y la composición musical, en relación a la presencia, los saberes del cuerpo y la reflexión sobre los hechos comunicativos de los seres vivos.



DEJABU PANPIN LABORATEGIA (Orereta, 2001)

Dejabu Panpin Laborategia jestu-antzerkia, objektu lana eta txotxongiloak uztartzen dituen euskal konpainia da. Ainara Gurrutxagak eta Urko redondok 2011ean sortu zutenetik bilakaera estetiko nabarmena izan du taldeak. Eszenaratze minimalista, irudi eta mugimendu zainduak eta gure historia hurbilean oinarritutako narratibak dira euren lanaren ezaugarriak. Eurena errealitatea poetikoki azaltzen duen antzerkia da. Umorea eta tragediaren arteko muga delikatuak mugitzen dira beti eta memoria kolektiboari erreferentzia egiten diote maiz. Kritika eta ikusleen harrera beroa jaso dituzte euren lanek urteotan. Sari ugari eskuratu ere bai: Gizona ez da txoria (2009) lanak Pragako World Puppet Festivalean zuzendaritza onenaren saria jaso zuen, Bilboko ACT jaialdian ikuskizun onenarena eta Serbiako Subotica Festivalean antzezle onenarena. Errautsak (2010), Gure bide galduak (2011) eta Arrastoak (2015) antzezlanek Donostia Antzerki Saria eskuratu dituzte.

Dejabu Panpin Laborategia es una compañía vasca en la que confluyen el teatro gestual, el trabajo con objetos y los títeres. Desde que Ainara Gurrutxaga y Urko Redondo la crearan en 2011, la formación ha realizado una evolución estética notable. Una puesta en escena minimalista, el cuidado en las imágenes y el movimiento y la utilización de narrativas basadas en nuestra historia cercana son las características de su trabajo. Es un teatro que explica su realidad de forma poética. Moviéndose siempre en la delicada línea entre el humor y la tragedia, hacen referencia, a menudo, a la memoria colectiva. En estos años, su trabajo ha tenido un recibimiento cálido por parte de la crítica y los espectadores. Han recibido también varios premios: la obra *Gizona ez da txoria* (2009) recibió el premio a la mejor dirección en el Festival *World Puppet* de Praga, el de mejor espectáculo en el festival ACT de Bilbao y a mejor actriz en el Festival Subotica de Serbia. Las obras teatrales *Errautsak* (2010), *Gure bide galduak* (2011) y *Arrastoak* (2015) han recibido el Premio Donostia Antzerki Saria.

R

q

TAILERRAK

-

TALLERES

k

D



TÍTULO: Escritura dramática

PROFESOR: David Barbero

CONTENIDO:

Se parte de la división en fases del proceso de escritura dramática con el fin pedagógico de ir analizando y desarrollando, de modo práctico, cada una de ellas.


Se acepta que el proceso creativo es particular y específico de cada autor. También se es consciente de que hay muchas maneras de afrontarlo. Pero existen métodos o pautas que pueden ayudar a desarrollar esos procesos sobre todo en los momentos de aprendizaje.

En concreto, se realizará un simulacro de desarrollo de un esquema para la escritura de un texto teatral con el fin de que cada alumno lo pueda utilizar a su manera en su actividad posterior.

DÍA/HORA: 8 de mayo, 16:30-20:30

NÚMERO DE ALUMNOS: 12 alumnos.

PRECIO E INSCRIPCIÓN: 15 € por persona. Inscripción arrakala@dantzerti.eus.



IZENBURUA: Irakurri eta dantzatu: aho batez. “txakolina edan zazu ondo dantzatzeko eta sagardo ederra ondo kantatzeko”.

IRAKASLEA: Idoia Zabaleta

EDUKIA:

Tailerrak Idoia zabaletak orain arte praktikaturiko “dantzatzeko moduen” berrikuspena egiteko ariketa bat partekatu nahi du. Irakurri-dantzatzen eta/edo dantzatu-irakurtzen ariketaren bitartez trebetasuna (irakurri dantzatuaz), plazerra (dantzatu irakurriaz), balentria (testu bat, eleberria, osoa hasieratik amaierara), idazkera (testua mugimendua da), historia (gorputz baten irakuketa), memoria (gorputz bat irakurtzen), koreografia (idazkera bat), korua (talde bat jardunean) eta taldea (ezinezko zerbait, aho batezkotasunaren saiakera bat).

Ikastaroaren berriazko metodologia funtsezko zazpi urratsetan oinarrituko da, ahotsaren eta gorputzaren berotzetik, *Aho batez* eta *Irakurri eta Dantzatu* teknologien ikastea, aukeraketa eta testuen analisi estrukturala eta dantzatutako-irakurketa publikoaren aurrean egitea barneratuko ditu.

EGUNA/ORDUA: Maiatzak 8, 17:00-21:00

IKASLE KOPURUA: 16 ikasle.

PREZIOA ETA IZEN EMATEA: 15 € pertsonako. Izen ematea arrakala@dantzerti.eus.



TÍTULO: Dramaturgias jamoneras y diccionarios de jardín de infancia para las artes vivas.

PROFESOR: Itxaso Corral


CONTENIDO:

Dramaturgias jamoneras porque tienen que ver con las carnes, con las carnes en movimiento, rebotando lozanas, desbordadas, exaltadas. *Diccionarios* porque buscar la definición de lo que cada palabra me significa y me mueve, nos ayuda a escribir textos que se pueden decir y, sobre todo, hacer. *De jardín de infancia* porque un jardín y de infancia es un lugar extraordinario donde estar, donde tener tiempo, donde volver al descubrimiento, y tener la posibilidad de revolucionar nuestros lenguajes. Y *para las artes vivas* porque las artes tienen que estar vivas, y las artes escénicas más que vivas, desbordadas de vida, y eso es un misterio, que no se entiende, pero que hay que intentarlo.

DÍA/HORA: 9 de mayo, 17:00-21:00

NÚMERO DE ALUMNOS: 16 alumnos.

PRECIO E INSCRIPCIÓN: 15 € por persona. Inscripción arrakala@dantzerti.eus.



TÍTULO: Una merienda con Aristóteles, o por qué siempre nos topamos con la Poética.

PROFESOR: Joan Casas

DÍA/HORA: 9 de mayo, 17:00-21:00

NÚMERO DE ALUMNOS: 16 alumnos.

PRECIO E INSCRIPCIÓN: 15 € por persona. Inscripción arrakala@dantzerti.eus.



IZENBURUA: Dramaturgia: makinaria zoroa.

IRAKASLEA: Patxo Telleria

EDUKIA:

Ponentearen azalpen teorikoak eta ariketa praktiko laburrak uztartuko dira, bigarren horietan indarra azpimarratuz.

Narrazio dramatikoaren muga eta ezaugarrien (dram, espazio-denbora, pertsonaiak, dialogoak, etab.) inguruan hausnartuko da, teoritik praktikara pasatzeko ondoren. Kontzeptu teorikoak praktikan jorratuko dira, ariketa individual zein taldekoak eginaz, egin ahala amankomunean aztertu ahal izateko.

EGUNA/ORDUA: Maiatzak 10, 16:30-20:30

IKASLE KOPURUA: 16 ikasle. (Ikasleek idazteko nahiago dutena – kuadernoa edota ordenagailua- ekarriko beharko dute).

PREZIOA ETA IZEN EMATEA: 15 € pertsonako. Izen ematea arrakala@dantzerti.eus.



IZENBURUA: Lekuko dramaturgiak. Arkitektura, testuingurua eta norberaren bizipenetan oinarritutako dramaturgia.

IRAKASLEA: Igor de Cuadra

EDUKIA:

Nola litzateke lekuan sortutako dramaturgia baten bitartez elkar ezagutzea?
 Nola litzateke norberaren lekukotasunak dramaturgia eszeniko bat elikatzea?

Espazioaren tolesdurak, egunerokotasunaren keinuak, memoriaren ahotsak eta denboraren hutsuneak nahasturik, lekua eta lekukotasunaren potentziak ikertuko ditugu ariketa fisiko eta praktikoen birartez:

Lekua Arkitekturan: Zein da arkitekturak gorputzean eta gorputzak arkitekturan eragiteko duten gaitasuna? (espazioa eta materialtasuna; gorputzak eta koordenadak; distantziak eta intentsitateak).

Lekua Testuinguruan: Hemen eta orainaren erradiografia eginez gero, zein da diagnostikoa? Zeintzuk atal gelditzen dira argazkitik at? (egoera eta testuingurua; harremanak eta hitzak; espazioa, metafora eta metonimia).

Lekua Norberaren bizipenean: Taldea eraikitzen ari denean, zer dio norberaren barneko ahotsak? (identitatea; begirada, atenzioa; memoria eta orbainak; historia eta testigantza).

EGUNA/ORDUA: Maiatzak 10, 16:30-20:30

IKASLE KOPURUA: 16 ikasle.

PREZIOA ETA IZEN EMATEA: 15 € pertsonako. Izen ematea arrakala@dantzerti.eus.



IZENBURUA: Objektuen dramaturgia

IRAKASLEA: Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo

EDUKIA:

Dejatu panpin laborategia konpainiako kideek sormen prozesuetan objektuekin egiten duten lana partekatuko dute ikasleekin. Objektuek antzerkira ekar dezaketen poetika indartsuarekin ikasleak inspiratzea da xede nagusia, objektuen bidez dramaturgia propioak osatzeko zenbait tresna partekatuz.

Objektu antzerkira lehen gerturapen bat egingo da. Horretarako konpainiarentzat oinarri diren gorputz adierazpena eta objektu lana uzatrtuko dira. Antzezleen presentzia landuko da eta objektuarekin nolako harremanak izan daitezkeen probatu. Objektuek, material ezberdinek, antzezpenerako zein dramaturgiak osatzeko egin dezaketen ekarpena azpimarratu nahi da, antzerki sortzaileek euren ahots propioa, euren poetika, bilatzeko tresna paregabea izan daitezke eta.

EGUNA/ORDUA: Maiatzak 11, 16:30-20:30.

IKASLE KOPURUA: 16 ikasle (ikasle bakoitzak bi objektu berezi ekarri beharko ditu).

PREZIOA ETA IZEN EMATEA: 15 € pertsonako. Izen ematea arrakala@dantzerti.eus.

A large, stylized yellow lightning bolt graphic that diagonally crosses the page from the top right to the bottom left. It has a jagged, stepped appearance. The text 'HITZALDIA' and 'CONFERENCIA' is overlaid on this graphic.

HITZALDIA
-
CONFERENCIA

Artes Escénicas: La crítica y la teoría en la formación del artista

De algunas palabras griegas –crítica, teoría e historia- y una que no lo es –literatura-. Reivindicación de un recorrido académico.

Joan Casas Fuster realizará un recorrido sobre su propio itinerario profesional en torno al teatro para defender una formación de carácter académico para los artistas.



JOAN CASAS FUSTER (Barcelona, 1950)

Alpha 63 taldearen eskutik hasten da antzerkian, Ricard Salvaten eremutik. Bertan interprete eta idazle giza dihardu eta hainbat literatur lehiaketetan parte hartzen du. Modu honetan, Grup d'Acció Teatraleko (GAT) ideologia bilakatzen da, hirurogeita hamar eta laurogeigarren hamarkaden antzerki independentearen konpainia dinamikoenetarikoak.

Ondoren, Geologia ikasten du, kazetaritza eta filologia ikasketak hasten ditu eta Zuzendaritza Eszenikoan lizentziatzen da Institut del Teatren. Ikasle urte horietan ezkerreko aktibismo kementsua mantentzen du (Francesc Vallverdúren eskutuko eskoletan katalanez idazten ikasteak izan zen jada honen ezaugarri).

Bere antzerkiarekiko dedikazioa hainbat arloekin betetzen du: historiarekin erlazionatutako ekintzak, eskola antzerkiko material didaktikoen sormena eta kazetaritza lana. Gaztaroko urte batzuetan *Diario de Barcelonako* berriemaile izan ondoren, bertan antzerki kritika idatzi zuen, *Avui* aldizkarian ere idatzi zuelarik 1990tik

1993ra. *Pausa* antzerki aldizkaria zuzendu zuen (1990-1995) baita *Estudis Escénics* (2007-2009) ere. Horrez gain, 27 urtez *Literatura dramatikoaren teoria eta historia*, *Kritika*, *Iksukizunaren arteen historia*, etab. irakatsi ditu Institut del Teatreko Antzerkiaren Teoria eta Historiako departamentuan.

Después de la lluvia (1991), *Nus* (Premi Ignasi Iglesias 1991), *Ready-Made* (Centre Dramàtic de la Generalitateko enkargua), *Al restaurant* (1993), *Nocturn corporal* (1994), *L'últim dia de la creació* (2001), *Elles mateixas* edo *La ratlla dels cinquanta* testuen autorea da, besteak beste. Hauetariko asko, editatuak eta estreinatuak izan dira.

Modu berean, itzulpen lanetan ere lan egin du: portugasetik (Helder Costa, Antonio Lobo Antunes eta José Saramago), greko modernotik (Iannis Ritsos poetaren lanaren zati bat itzultzen du bertan), italiarretik (Carlo Goldoni, Pier Paolo Pasolini eta Dario Fo), frantsesetik (Rousseau, Saussure, Marivaux, Proust, etab.), bulgarotik eta errusieratik (A. Chéjoven lana itzuli du Nina Avrovarekin).

Horrez gain, narrazioa (*Pols de terrat* (1980), premi Ciutat de Palma) eta poesia idazten du, laurogeigarren hamarkadan Feliu Formosarekin batera hasitako ibilbidea.

Hau gutxi balitz, artikulu ugari, literatura-ikerlanak eta entseguak (*Diderot i el teatre*, 1986) idatzi ditu. Lan honen zati bat argitaratu gabe dago eta, egun, bere jakitun jarduera mantentzen du 2016ko abenduan Adesiara argialetxeak argitaratutako *L'escena antiga* (1986) lanaren luzatzearekin.

Euskal antzerkiarekin duen erlazioa luzetik dator. GEROA konpainiarekin hasi bait zen, *Cómicos de la Lengua* eta *Akelarrerekin* batera, egungo euskal antzerkiaren aitzindari izan zirenak. Kolaborazio honen fruitu izan zen *Y Antígona...?* Joan Casas beraren lana, 1988an estrenaitutakoa Paco Obregónen zuzendaritzapean.

Dantzertirekiko lotura bere eskuzabaltasunarekin du erlazioa. Aurreko ikasturtean, bere liburutegi pertsonaleko 2000 bat ale Dantzertiko liburutegiari eman zizkion, hain zuzen ere. Antzerkiarekin zuzenean erlazioa duten eta mendebaldeko antzerkiaren garai guztiak batzen dituzten lehen eta bigarren mailako testuak dira hauek: ekialdeko antzerki tradizioko lanak, frantsesez, italieraz, portugesez, katalanez

eta gazteleraz argitaratutako ikerketak eta aldizkariak... Arte eszenikoetako edozein profesionalentzat interes handiko bilduma eta Dantzertiko liburutegiaren garapenerako material bikaina bai ikasle bai herritarrentzat. Emandako liburuki batzuk gaur aurkitzeko ezintasunak, bere dohaintzaren balio ekonomiko itzelarekin batzen da, beti ere, bere keinuaren eskuzabaltasun filantropikoari lotuta.

Dantzertiren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aldetik elkarrekiko bidezko erantzunik gabe geratu ezin zitekeen keinua.

Se incorpora al teatro de la mano del grupo Alpha 63, de la órbita de Ricard Salvat, donde interpreta, escribe y toma parte en diferentes certámenes literarios, para convertirse después en el ideólogo del Grup d'Acció Teatral (GAT), una de las compañías más dinámicas del teatro independiente de los setenta y ochenta.

Posteriormente estudia Geología, y comienza los estudios de periodismo y filología y se licencia en Dirección Escénica en el Institut del Teatre. Durante sus años de estudiante mantiene un dinámico activismo de izquierdas (del que había dado señas al aprender a escribir en catalán en las clases clandestinas de Francesc Vallverdú).

Complementa su dedicación al teatro con actividades relacionada con la historia, la generación de materiales didácticos de teatro escolar, y la actividad periodística. Tras unos años de juventud como corresponsal del *Diario de Barcelona*, fue su crítico teatral, además de escribir en el diario *Avui* entre 1990 y 1993. Dirige las revistas teatrales *Pausa* (1990-1995) y *Estudis Escènics* (2007-2009), en paralelo a su actividad docente en el Departamento de Teoría e Historia del Teatro en el Institut del Teatre, donde imparte durante 27 años las asignaturas de *Teoría e historia de la literatura dramática*, *Crítica*, *Historia de las artes del espectáculo*, etc.

Cabe destacar, entre otros textos de su autoría, *Después de la lluvia* (1991), *Nus* (Premi Ignasi Iglesias 1991), *Ready-Made* (encargo del Centre Dramàtic de la Generalitat), *Al restaurant* (1993), *Nocturn corporal* (1994), *L'últim dia de la creació* (2001), *Elles mateixas o La ratlla dels cinquanta*, que han tenido diverso recorrido, siendo varios de ellos editados y estrenados.

Del mismo modo ha trabajado en traducción de obras del portugués (Helder Costa, Antonio Lobo Antunes y José Saramago), el griego moderno (de donde traduce

una parte de la obra del poeta Iannis Ritsos), el italiano (Carlo Goldoni, Pier Paolo Pasolini y Dario Fo), el francés (Rousseau, Saussure, Marivaux, Proust, etc.), el búlgaro y el ruso (de donde ha traducido teatro de A. Chéjov con Nina Avrova).

Escribe, además, narración (donde cabe destacar *Pols de terrat* (1980, premi Ciutat de Palma) y poesía, campo de inicio junto con Feliu Formosa a mediados de los ochenta.

Por si todo ello fuera poco, ha escrito abundantes artículos, estudios literarios y material de ensayo (como *Diderot i el teatre* (1986)), una parte de la cual continúa siendo inédita, y mantiene en la actualidad su actividad erudita habiendo prologado la obra *L'escena antiga*, publicada en diciembre de 2016 por la editorial Adesiara.

Su vinculación con el teatro vasco tiene largo recorrido ya que se inició con la compañía GEROA, que junto a Cómicos de la Lengua y Akelarre fueron los pioneros del teatro vasco actual. Fruto de esta colaboración sería *Y Antígona...?* de autoría del propio Joan Casas, estrenada en 1988, bajo la dirección de Paco Obregón.

Su vinculación específica con Dantzerti deviene de su generosidad al haber donado durante el pasado curso, cerca de 2000 volúmenes de su biblioteca personal, específicamente relacionada con el teatro, y que contiene textos primarios y secundarios de todas las épocas del teatro occidental, obras sobre tradiciones teatrales orientales, estudios, investigaciones y revistas en francés, italiano, portugués, catalán y castellano, componiendo un conjunto de gran interés para cualquier profesional de las artes escénicas y un material de partida magnífico para el desarrollo de la biblioteca de Dantzerti y el uso, para su formación, tanto de los alumnos del centro como del conjunto de los ciudadanos. Al enorme valor económico de su donación se une la imposibilidad de encontrar hoy algunos de los volúmenes donados, además de, principalmente, el valor que les otorga la filantrópica generosidad de su gesto.

Gesto que no podía quedar sin justa respuesta recíproca por parte de Dantzerti y el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

DANTZERTI-UTAH EUSKAL DANTZAKO TOPAKETA

ENCUENTRO DE EUSKAL DANTZA DANTZERTI-UTAH

Ameriketako Estatu Batuetako Utahko Unibertsitatean gradu mailako dantza ikasketak burutzen ari diren ikasleen bisita izango da Dantzertin maiatzaren 9an eta bertako ikasleekin euskal dantzetan master-class bat konpartituko dute. Salt Lake Cityn (Utah, AEB) dantzako gradua burutzen ari diren ikasleak dira, bere karrerako azken ikasturteetan dira, eta beraien formazioa osatu asmoz euskal dantzen kurso intentsibo bat jasotzeko Euskal Herrira etorriko dira 2017ko maiatzean.

Utahko dantzariek euskal dantzen inguruan Dantzertin jasoko duten master class-a Bilbao Musikarekin elkarlanean antolatu da, eta bertako bi musika eta dantza irakasle, Sabin Bikandi eta Patxi Laborda arituko dira irakasle. Euskal dantzetan ohikoak diren hiruko konpasean egiten diren dantzen (jota, fandango, ingurutxoak, balsa, mazurka,...) inguruko master classa ekainiko dute Bikandi eta Labordak, eta bertan ikasle arituko dira elkarrekin Salt Lake City-tik etorritako dantza ikasle amerikarrak eta Dantzertin dantza eta antzerkiko goi mailako ikasketak egiten ari diren ikasleak.

Topaketa hau Utahko Unibertsitateko ballet departamenduan euskal dantzarekin duten interesaren ondorioz gertatuko da. Dantzan gradua eskuratu aurretik euskal dantza tradizionalari buruzko oinarrizko ezagutza bat izatea garrantzitsua dela iruditu zitzaion Richard Wacko irakasleari, eta dantzan.com elkartearekin harremanetan jarri ziren euskal dantzen ikastaro trinkoa eskaintzeko eskatuz, dantzan.com elkarteak Dantzan Ikasi, euskal dantzetan irakasleak formatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa koordinatzen baitu.

Dantzertik topaketaren ardura hartu du dantzan.com elkartearekin elkarlanean.

El 9 de mayo sucederá una visita de un grupo de alumnos que están cursando los estudios de grado en la Universidad de Utah (EE.UU.) con los que se compartirá una master-class. Se trata de alumnos que están cursando el grado de danza en Salt lake City (Utah, EE.UU.), que se encuentran en los últimos años de su carrera, y que se acercarán a Euskal Herria en mayo de 2017 con la intención de completar su formación mediante un curso intensibo en torno a la euskal dantza.

La master-class que los bailarines de Utah recibirán en Dantzerti ha sido organizada en colaboración con Bilbao Musika dos de cuyos profesores de música y danza, Sabin Bikandi y Patxi laborda, serán los profesores responsables de la misma. Bikandi y Laborda ofrecerán una master-class sobre las danzas, habituales en la euskal dantza, que se realizan en tres compases (jota, fandango, ingurutxo, vals, mazurka, etc.), y como alumnos tendrán tanto al grupo de alumnos de Salt Lake City como a un grupo de alumnos y alumnas que están cursando el Título Superior de Danza y arte Dramático en Dantzerti.

Este encuentro es fruto del interés en la euskal dantza del departamento de ballet de la Universidad de Utah. El profesor Richard Wacko consideró importante que antes de obtener el grado en danza los alumnos tuviesen un conocimiento elemental sobre la euskal dantza tradicional, para lo que se puso en contacto con la asociación dantzan.com para solicitarle la preparación de un curso intensibo, dado que dantzan.com coordina el programa Dantzan ikasi, de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de formación de profesores en euskal dantza.

Dantzerti acoge el encuentro en colaboración con la asociación dantzan.com.

R

q

ATE IREKIAK

-

PUERTAS ABIERTAS

k

D

Dantzertik 2015/2016 ikasturtean bere atek zabaldu zituenetik asko izan dira guregana eskeintzen ditugun ikasketen inguruko informazio bila gerturatu direnak: maila guztietan graduaren balio berekoa den goi mailako titulua, ibilbide akademikoa unibertsitateko master eta doktoretzak egiten jarraitzeko aukera, irakaskuntza oso praktikoa baina base teoriko trinkoarekin, etab.

Interes hau dela eta, hala nola zentrua eta baita ikasketak ere Euskadin berriak direla ikusita, horrek dakartzan duda guztiekin, bigarren urtez ate irekien eguna burutuko dugu, gure zentruan egiten dugun lana eta sarbide probak sakonki ezagutzeko interesa duten ikaslegai eta senideei zuzendutakoa.

Ate irekien eguna 2017ko maiatzaren 11ean gertatuko da, honako egitarauarekin:

ARTE DRAMATIKOA	DANTZA
9'30-11'00 Antzerki fisikoa I Dantza eta mugimenduaren teknikak II	9'30-11'00 Dantza klasikoaren teknika I Dantza garaikidearen teknika II
11'10-11'50 Solosaldua Auditoriumean: Dantzertiko ikasketak, sarbide probak, etab.	
12'00-13'30 Interpretazioa II	12'00-13'30 Sorkuntza tailerra I Interpretazio tailer garaikidea II

Plazak halabeharrez oso mugatuak izango direnez, bertaratzeko interesa duten ikasleek izena eman beharko dute administraritza@dantzerti.eus emailaren bitartez 2017ko maiatzaren 5a bitartean.

Ate irekietara eskolan burutzen den eguneroko aktibitatea ezagutu nahi dutenek gerturatu ahal izango dira, baita laguntzaileak ere (aita-amak, etab.), baina geletara sartzeko lehentasuna ikasle gaiek izango dute.

Desde que Dantzerti abriera sus puertas en el curso 2015/2016 multitud de personas se han acercado al centro a interesarse por los extremos de los estudios ofertados: título superior equivalente a grado a todos los efectos, posibilidad de continuar una carrera académica mediante estudios de másteres universitarios y doctorados, formación eminentemente práctica pero con una base teórica consistente, etc.

Habida cuenta de este interés y de la novedad del centro y los estudios en Euskadi, con las dudas que todo ello suscita, por segundo año consecutivo realizaremos unas jornadas de puertas abiertas dirigidas a aquellos alumnos y familiares de los mismos que deseen conocer más en profundidad el trabajo que desarrollamos en el centro y los modos de acceso al mismo.

La jornada de puertas abiertas tendrá lugar el jueves 11 de mayo de 2017, con el siguiente programa:

ARTE DRAMÁTICO	DANZA
9'30-11'00 Teatro físico I Técnicas de danza y movimiento II	9'30-11'00 Técnica de danza clásica I Técnica de danza contemporánea II
11'10-11'50 Charla en el Auditorio: estudios en Dantzerti, pruebas de acceso, etc.	
12'00-13'30 Interpretación II	12'00-13'30 Taller de creación I Taller de interpretación contemporánea II

Dado que las plazas están forzosamente muy limitadas, los alumnos interesados en asistir a la jornada deberán inscribirse mediante email a administraritz@dantzerti.eus hasta el viernes 5 de mayo de 2017.

A las jornadas podrán asistir quienes deseen conocer en profundidad la actividad corriente de las aulas, así como acompañantes (padres y madres, etc.), aunque la prioridad en el acceso a las aulas la tendrán los futuros alumnos y alumnas.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN EMATEAK

www.dantzerti.eus / arrakala@dantzerti.eus

MÁS INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES

www.dantzerti.eus / arrakala@dantzerti.eus